

ESPAÑA-EUROPA-EUSKAL ERRIA

España'ko Gobernu berriak bere ibilbidea agertu nai izan digunean, zera esan digu: sartaldekoak geran ezker, Europa'kin alkatzeraz luza tu bearko ditugu pausok.

L'Express printzes aldizkariari eginiako deklarazioetan, onela mintzatu zan Lopez Rodas: irixi zaiu azkena España'ren bakardadeko autarkieri eta «prest dago supranazionalki alkatzerko bideak moztea». Ez dugu gogo jeki bearrik, itz auek Europa'ri begira esanak dirala oartzeko.

1962'ko otsailaren berderatzen eman zitzaion asiera politika eni España'ren aldetik, orotariko artuemanetara iriki zanean. Artueman auek, leen aldi batean, komertzialko itun batera irixteko efburua dute; izan ere, bere ekonomia-politika egiturak dirala-ta, Grezia'k diuarenen antzeko alkatzerak batera irixteko gai ez da oraindik.

Euskaldun europazale geranez, pozik ikusten ditugu España'k sofitzitan duen itxiturari ateak irixteko alegin guziaz. Izan ere, aspaldiz-aspalditik, bakardadeko bide estu eta itxian ibilli da España, al-dekik nik zenbat gertakizunek eragina. Moreokin burrukan asi zaneetik, Europa'ko aldeetatik aparte ibilli da; Europa'ko aide berri-zalle, aurreratzaile eta mesegarriengandik aparte ibilli ere.

Badira, oraindik, eronka juaz, España kapitalismo bide oriatan abiatzeko gai ez dala diotenak. Irizti au, ordea, ez da batera aurrerakoa; orixi joanean, atzerapena eta bertan bera amiltzea lortuko litzake gaur goean.

Egizale zuurrak bear dugu izan. Europa'kin alkatzerak, sustraiko eraberritzeak eskatzen ditu. Gure azterketan pikat sailatzea aski da premi latak ikusteko: erakundeetan, ekonomia-politika eginturen eta zer esanik ez kulturari. Bide ontatik abiatzek, buru-biotzak beste malla bateran ipintzea eskatzen du: gizonaren askatasuna legeko estaduan hateratuz, indarraren aurretik ipiniari alkatzeraketa, danekikoa bekar batena bada lenago ezagutzuz, erriak diona errezpetatuz, eta denak berdin arauk ditzean aleginduz.

Inozo gutxi batzuk besterik ez dira, aurrerabide au moztu nai dutenak. Baina ekonomia egiturak berritu bear ditugun era berean, politika bideak ere, garbiki eta egiki, berritu bearko ditugu europarrek in alkatzerkotan. Osterantzen, alperrik lirake alkatzerko asmo guziaz.

Ilunaldiak ilunaldi, eragozpenak eragozpen, Europa'ko Erriari bideratzea argitzen ari da batasun izarraren argibidean. Frantzia'ko eskualde edo regionak berpiztea De Gaulle'n eruzt ilundu zan; eskualde berri-ze senadoaren aukerarekin naustu bai-zuan. A'binan ba-ator berri-ze au; erdiko ezkeriarrak batez ere, ori irixi arteko onik ez dute.

Eta España'k ere gaurko gertakizunak eskatzen duen jatorritasun eta egizaleatasunakin jokatzen badu, bide berditetik jo bearko du. Zentralismo deritzon pizti itxusi orren azkena ba' datorrela uste dugu. Gure erriaren antziako gogoen aribide berean dazoz gauzak. Beti izan bai-du gure erriak defentsarako ausardia. Eldu da bai ordua, region nortasuna ezagutzeko ordua eta euri dagozkien egitura egokiak sortzeko unea: naiz ekonomian eta administratzean, naiz politikan eta kulturari.

Beren izatera ala dalako, beti izan da Euskal Erria oso egokia bere buru-jabetasuna gordetzen eta beste erriek laguntza eta lankidetasuna ematen. Baina beste erriak ez bezela, gurek beti alkatu izan du bi alderdi oiek. Bata bestean oinarritzen bai-dira. Bi alderdiak zatitzeko arriskuan arkitu danean, bere izarraren azken ikusidun du.

Frantzia'ko eta Amerika'ko erakundeak berekin dituen demokrazi eta berdintasun bideetan. Bere erriaren daramaki egarri au Euskal Erriak. «Cuadernos para el dialeto»-k dion bezala «elberriko demokrazi jatorraren defentsaleatik aurrentakoko dalako munduan». Orregaitik uste dugu, zer esana ba-duela Euskal Erriak gure European.

NORK EGIA ?

URSS'eko misiloen zuzendaria dan Sedov'ek hau esan du Joan dan astean: «Gure sistemoa planetetan ez dago bizirik Lurretik at». Ilargitik garratitutako harri puskek irizti horitaraxe bultzatu dute ilargiari berari dagozkionez: bizi aztarnarik ez dago han. Gero eta garbiago beraz: gure sistemoa ez dago bizirik. Beste bizidunekin inoiz gizadiak hartu-emanak lortzea, beraz, gero eta zailago agertzen da; gure «ondoko» izarrak bertakoenak ulertu ere ezin dituztekan distzietan baitaude:

33.000.000.000.000.000. Zentauro'ko Alpha! Ez gerra aisa joango turista gisa!

Joan dan udaran, Armstrong'en bidala ahaztu-ezina zala bide, eruzt idatzi zan huni buruz. Eta Lwoff'ni ba'bi-Sariaren deklarazioa ez zait abaztu: «Nere sendimendua hau da: Lurretik at ez dagoela bizirik». Irizti hau ausarta iruditzen zait, benetan. Gau argi garden batek ez du hori idarokizten, zalantza oso bat baizik. Irizti hori egia azotekotan, bestalde, kezkaragaria izango litzake oso: Ptolemeo-tasun berri horrek dardarzik egingo litzake oso modan dauden errelatibismo guziaz.

Lwoff'en azterbide oso erabilia izan da (ikus Lecomte de Nouy, esate baterako): karbonozko molekula haundiak sortzea harriagaria da probabilitadean aldetik. Temperatura berezi bat behar da mende askotan barrera (beroaldi zakar bat litzake mila menderen lan gaitza hondatzea); horrelako gertakarien batek suntsiarazi bide zituen Sekundario ko saurio guziaz, eboluzioan orduko aski bestelakatuak; ura behar da eruzt, temperatura egoki baitzan; eguzkiaren irradiazioak beren horian egon behar dira hain zuzen (distantziak, espektroak, eta abar). Enzimak, proteinak, nukleo-garratzinak, behar dira; danak berez sortzeko probabilitade oso hurriko sorkariak. Hauek gabe, ordea, eta ADN-rik gabe batez ere, ez dago eboluzioa hasten.

berean, txiripa batetik bestera Joan behar da: bai inguramenduetatik bai zelulen aldetik. Hitz batez, eta Lwoff'en iriztiz, «bizi dan organismo bat, bere barne-egitamu edo estruktura nolana hioa izan ere, probabilitade hurriko gertaera-segida oso baten ondorio izango da beti». Lurrean gertatu dana oso gutxitan gerta ditzake Kosmoan: kasualidade gehiegi batera. Beraz, bizidunak Lurrean sortu dira; baina Lurretik at bat ere ez.

Irizkera hunek, jakina, balio berezia ematen die berriz gure Lur eskas huntako kondairari eta patuari: berritoe ere, izartegiko «erdian» giknake, «berezkuntza» bitxi gisa, Gizona Kosmoaren giltzari modura agertuz, antzina bezelaxe.

Esan beharrik ez dago: jakintsu guziaz ez dira hortan. Urrutirago gabe: Jacques Monod bera, Lwoff'ekin batera Nobel-Sari berberaren hartzaile, ez dator bat Lwoff'ekin. Sistema «idekietan» (alegia, energia kanpotik jasotzen dutenetan, eta bai Lurra eta bai planetak mota horkoak dira, izartegi guzitik iristen baitzailke irradiazioak eta energia hitz batez) ez bide dago, jakintsu batzuen ustez, «probabilitade» kontua soilik: beste lege batzuk ere bultzatzen bide dute materia bizikala eta bizidunak demor ematera. Hauen ustez, beraz, bizi halabeharrezkoa da: txiripa hutsa eta behar hutsa batera. Zenbait meteoritotan, esate baterako, karbonozko molekula haundiak aurkitu bide dira (biziazien oinarria, alegia); eta meteoritok horiek ez dira ez gure Lurra ko arrasto eta ez gure sistemoa harri puska eskierki, beste izarr-sistematiko hondakinak baizik.

Nola erabakiko? Nork arrazoin? Nun egia? Ezin esan. «Zailtasun osozko problema dugu hau», dio Montek berak P. H. Simon'i erantzuz. Egiazki: biziazien iturburuen arazo zail hau bi lerrotan «garbi» utzi uste dutenak bederen, egiatik urrun daude. LARRESORO

ATZERATUAK

Azaroko lenego igande goizean Miramon-eko gaitien nintzan. Eguraldi ederra. Makinabat jende bildu zan Donostiko Kaja Aorrosak paraje aietan pasotako errixa zoragarrian. Inaugurazio zan. Oriamendi iya bertan aurrez-aurre, gandoak estaltzen zituan urrutietako bixtak.

Deitura «Patronato San Miguel» du Donostiko Kaja Aorrosaren egintza onek. Ume atzeratuen alde egina da era bat. Ni irizti ta andik pixkabatera Gotzai jauna sayatu zan meza erdiko sermoyan atzeratu gaxoen eskubideak gogortzen eliza berria lertzerako bete-betean zegoan jendeari.

Inoxentek deitzen zitzaioeten gure artean ume atzeratuak. Barkazioa eskatu bearra daukat itz ori erabili delatoko. Norbaiti min aundia eman letoke itz ori irakurtzeko.

Baño ez det uste gure zaarrak itz ori asmatu zutenen intentziko txarririk izatea gabe. Angerua.

Orrelako bat ikustean pentsimatu auxe etortzen zait beti burura. Gure Jaungoikoaren aingerurik ederrarenen argu daukela ume erriarri oiek.

Eta baita beste au. Orrelako ume baten aurrin gure txarrerako griña asko era bat erortzen zaizkigula. Gure barrenari begiratsen diogula latsaz ixill-ixilleen. Gure gaiztakeriari arpegi eman, barren-esamiñaz. ¡Gure kul-pak salatsen dizkiguten aingeru erriarrikak!

Gurasoko ikizutatu egiten zituzten orrelakoak sa-soi batean. Eta ikizutaze orretan zenbaterainoko pena zegoan, jork neurti!

Bear bezelako semeak zituanek ezin noski neurtu inuiden eten-gabeke samintasun iraukor ori.

Gauza guzitiak ez dijonaze txarrrera gure garuko

KEZKAK

ASTIN-ALDIAREN MESEDEAK

GAZTANAGA'K

Astintzea eta zapaltzea obe, txalotzea eta gorlaltzea baino. Bai egia dala! Eta ikasbide ederra, mesede-garria danontzat, azkeneko 50 urte auetan Errusia'n gertatu! Nork uste zezakean?

Errusi guztian zabaldurik zegoan kristautasuna, gizaldi onen asieran. Kristautasuna bai, katolikua ez bazan ere. «Ortodoxo» deritzon oietako kristauak ugari ziran orain 60 urte.

Eta gaur? Berri ilunak barreiatu izan dira zuten artean: eliza asko itxi erazten zituztela orreuz... erlijioa zerao debekaturik... kristautasuna galtzeko zorian... eskolarik ez, kristauen esku...

Dana esanik al dago berri oiekini?

Zer ageri ote da, sakonago begiratu ezker?

Ortodoxuen Eliza'k indar aundia zuan Errusia'n: eliza eder asko, ikas-eteke ugari, apaizgaitegi eta fralletegiak ere oparo zeuzkan.

«Zar» zeritzaen agintarian aldian zana. Lasai bizi zan Eliza «Zar» aien babesean. Ezeren arriurrik ez, agintari eta dirudun aundiek artu-emanak eta adiskidetasuna; baita dirulaguntzak ere.

Ordungo gizartean ere sarrera aundia zuan. Ondasun asko zeuzkan bere esku eta askori ematen zien bere laguntza.

Baina baita jendetza ugariak ere ba-zeuzkan Eliza'k bere serbitzura-ko lanean. Oparo antolatutako eraketaren jabe zan. Itz batean, «buro-

krazia» deritzaiona: agiriko egitura aundia, alegia.

Begiratu batean, indar aundiko alkatzea zan Eliza. Agirian beintzat bai. Baina bere barruan indartsu ote zan? Jokabide garbigia eta su gartsuegia euki-ald izateko, ez al zan ondoregi eta eroseogi bizi?

Etorri zan Komunismoa 1917'gn urtean eta orra gald Eliza'k agiriko bere indar eta eraketa guztia; gela-ba beintzat.

Lengo batean eta laguntzaren ordez, oraingon erasoak eta astin-aldi latak eraman bearra etorri zitzaion.

Bi erataro eraso zion Komunismoak Eliza'ri: aldir, zuzenean astindu gabe, beste era berri bateko gizartea sortu naiean aleginik aundienk eginez. Orrela, berez galduko zala erlijioa uste bait-zuten.

Baina baita beste zenbat aldir, biziro gogor lotu eta estutu zuten, agirikoeraketa deseginaz eta zerga aundiak ezarriaz, berealaxe ito eta ondatu naiean.

Ukatu ez ditena da, bildurgarriko astindua eta zigor-ipoiz izugarria artu dituala Eliza'k Errusia'n. Aztertzeko eta ikusteko litzake, zertain arrazoiz eta zertan gabe: berran jar-zan-aldi beltza jasan bearra izan duanik, ezin ukatu.

Eta gaur? Guztia galdurik ote? Eta gutxiagorik ere! Zerao beste era batera, ori bai; baina dana indar-berriturik arkitzen da bere barruan. Ondasunak eta agiriko eraketa galdtu ditunean, gizarte-lanak utzi bearean gertatu da. Zer egia? Erriarekiko lanbide guztiak itxi dizkiotenean, bere barrua bildu da. Bere alegin guztia elizkizunetan eta eukaristi-gintzan jarri du.

Komunistek egiten dituzte aleginak, (11'garren orrialdean jarraitzen du)

Zeruko Argia

Zuzendaria:

MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Naparoko-Kantauriko ta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Carlos III, 22. Pamploña)

DONOSTIA'n:

Oquendo, 22. Telf. 26666

ARPIDE SARIA:

Urteko 190 Pta. Azterrian 265 »

Aldez artu nai bada, galdetu.

ARENZA'TAR JOSU